

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

ALKATETZA ETA ERAKUNDE HARREMANAK

Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2016ko irailaren 30ean hartutako erabakiaren laburpena: Euskaltegiei 2016-2017 ikasturtean hirian ematen dituzten ikastaroengatik diru-laguntzak emateko deialdia

BDNS (identifikatzailea): 318921

Diru-laguntzak emateari buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8 a artikuluetan aurreikusitakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitara ematen da; horren testu osoa Espainiako Diru-laguntzen datu-basean (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>) kontsulta daiteke

Lehen. Onuradunak

Ikastegi homologatu gisa HABEren (Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea) erregistroan izena emanda dauden hiriko euskaltegiek eskatu ahalko dituzte oinarri haue-tan arautzen diren diru-laguntzak, diruz laguntzen den aldian —2016-2017— Gasteizko udale-rrian jardun eta Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikulua-k xedatutakoak betetzen badituzte.

Bigarrena. Helburua

Euskaltegiei 2016-2017 ikasturtean hirian ematen dituzten ikastaroengatik, elkarren arteko lehiaren bidez, diru-laguntzak emateko deialdia eta prozedura arautzea dute xede oinarri hauek.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Gasteizko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarrak 2016ko irailaren 30ean egindako ohiko bilku-ran onartu ditu, eta ALHAOn argitaratuko dira.

Laugarrena. Zenbatekoa

Deialdiari 99.000 euroko aurrekontua egokitu zaio.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

20 egun natural, deialdia ALHAOn argitaratzen denetik.

Vitoria-Gasteiz. 2016ko irailaren 30a

Alkatetzaren eta Erakunde Harremanen Saileko zuzendaria
BLANCA GUINEA ASTOBIZA